



**Egunak:** Ekainaren 11tik 16ra

**Orduetgia:** 9.00etatik 14.00etara

**Lekua:**

*Arabako Campusa:* Elurreta eraikina.

*Bizkaiko Campusa:* Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Sarriko)

*Gipuzkoako Campusa:* Carlos Santamaría Zentroa.

**Harremanetarako:** 94 601 2962 / [competenciaintercultural@ehu.eus](mailto:competenciaintercultural@ehu.eus)

## KRONOGRAMA

CAMPUSA	Astelehena 11	Asteartea 12	Asteazkena 13	Osteguna 14	Ostirala 15	Larunbata 16
ARABA	<i>Taldeen arteko harremanak eta aniztasuna</i>	<i>Kulturarteko komunikazioa eta emozioen erabilera</i>	<i>Komunikatzeko gaitasuna eremu formalean zein akademikotan</i>	<i>Komunikatzeko gaitasuna eguneroko egoeretan</i>	<i>Herri-kultura eta kulturartekotasuna</i>	<i>Kultura-talkaren esperientzia nazioarteko ikasleengan</i>
	Magdalena Bobowick eta Arrate Agirrezabal	Virginia Díaz Gorriti eta Arrate Agirrezabal	Ruth Milla	Irene Balza	Angel Chaparro	Elena de Lorenzo
BIZKAIA	<i>Komunikatzeko gaitasuna eremu formalean zein akademikotan</i>	<i>Komunikatzeko gaitasuna eguneroko egoeretan</i>	<i>Herri-kultura eta kulturartekotasuna</i>	<i>Kultura-talkaren esperientzia nazioarteko ikasleengan</i>	<i>Taldeen arteko harremanak eta aniztasuna</i>	<i>Kulturarteko komunikazioa eta emozioen erabilera</i>
	Ruth Milla	Irene Balza	Angel Chaparro	Elena de Lorenzo	Magdalena Bobowick eta Arrate Agirrezabal	Virginia Díaz Gorriti
GIPUZKOA	<i>Komunikatzeko gaitasuna eremu formalean zein akademikotan</i>	<i>Komunikatzeko gaitasuna eguneroko egoeretan</i>	<i>Taldeen arteko harremanak eta aniztasuna</i>	<i>Kulturarteko komunikazioa eta emozioen erabilera</i>	<i>Kultura-talkaren esperientzia nazioarteko ikasleengan</i>	<i>Herri-kultura eta kulturartekotasuna</i>
	Gorka Román	Gorka Román	Magdalena Bobowick eta Arrate Agirrezabal	Virginia Díaz Gorriti eta Arrate Agirrezabal	Elena de Lorenzo	Angel Chaparro



## IRAKASLEAK

**Arrate Aguirrezabal**- Gizarte Psikologiaren, Osasunaren Gizarte Psikologiaren eta Aniztasunaren alorreko irakaslea eta ikerlaria UPV/EHUn. GIB/HIESa eta talde minorizatuak jorratzen ditu.

**Irene Balza Tardaguila**- UPV/EHuko Atzerriko Hizkuntza-gaitasunaren Garapeneko eta Atzerriko Hizkuntzaren Didaktikako irakaslea. Linguistikan doktorea eta sintaxi eta semantika generatiboen eremuan ikerlaria.

**Magdalena Bobowik**- UPV/EHuko irakasle eta ikerlaria, Gizarte Psikologia, Taldeen arteko Harremanak eta Kultura Psikologiaren alorretan. Psikologian doktorea eta immigrazio, nortasun sozial, taldeen arteko eta kulturarteko harreman eta psikologia positiboko gaietan aditua.

**Ángel Chaparro Sainz**- Itzulpengintza eta Ipar Ameriketako Literatura eta Kulturako irakaslea UPV/EHUn. Amerika Mendebaldean, Musika eta Literaturan, Minoriak edota Literatura Itzulpengintzan aditua.

**Elena de Lorenzo Urien**- Komunitate Erizaintzako irakaslea UPV/EHUn. Kultura-gaitasunean doktorea eta espezialista.

**Virginia Díaz Gorriti** - Gizarte Psikologia Saileko eta Jarreraren Zientzien Metodologiako irakaslea UPV/EHUn. Filosofoa, musikologia eta hizkuntzalaria.

**Ruth Milla Melero**- Komunikazio Gaitasuneko eta Atzerriko Hizkuntzaren Didaktikako irakaslea UPV/EHUn. Hizkuntzak hizkuntza anitzeko testuinguruetan bereganatzean espezialista.

**Gorka Roman Etxebarrieta** - Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika Saileko irakaslea UPV/EHUn. Antropologoa eta Filologoa. Diskurtso, nortasun kultural eta zientzia politikoaren azterketan espezialista.



### MODULUA: KULTURARTEAN KOMUNIKATZEKO GAITASUNA

Kulturarteko gaitasunaren garapenaren baitan, funtsezkoa da ikasleei komunikatzeko gaitasuna indartzeko tresnak eskaintzea. Saio hauen bidez, baliabide teknologiko, zein idatzizko eta ahozkoak, eskaini nahi dira, kulturarteko ingurune batean ikasterakoan aurkituko dituzten egoeretan eraginkortasunez komunikatu ahal izateko berezko hizkuntza-trebetasunak erabili eta hobetzeko.

#### Gaitasunak

1. Gizarte- eta kultura-testuinguruetako ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko diskurtsoak ulertzea, batez ere alor akademikokoak eta komunikabideetakoak, horietako bakoitzak dituen komunikazio-ezaugarriak kontuan hartuta eta horien edukia modu kritikoan interpretatuta, behar bezala erantzuteko gerta daitezkeen komunikazio-egoerei.
2. Ahoz eta idatziz adierazi eta interaktuatzea, komunikazio-egoera eta -helburu ezberdinen araberako diskurtso koherente, zuzen eta egokien bidez, bereziki eremu akademiko eta sozialean. Hori guztia jarrera kritikoarekin, errespetuzko eta lankidetzako jarrerarekin, eraginkortasunez erantzuteko komunikazio-beharrizan ezberdinei.
3. Atzerriko hizkuntzak eta, orokorrean, hizkuntza guztiak positiboki baloratzea, jatorri, hizkuntza eta kultura ezberdinetako pertsonen arteko komunikabide gisa, esperientzia antolatzeke eta harreman pertsonalak egituratzeko beste moduak ulertzeko.

4. Atzerriko hizkuntzen osagai ezberdinen inguruan hausnartzea, behar bezalako kontzeptu eta prozedurak erabilita, ahozko eta idatzizko testuen ulermena analisia eta ekoizpena hobetzeko, eta bereganatutako ikasgaietatik hizkuntzen arteko transferentzia sustatzeko.

5. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak autonomiaz, espiritu kritikoz eta zentzu etikoz erabiltzea, informazioa bilatu, hautatu eta prozesatzean gizarte- eta kultura-bizitzaren testuinguru ezberdinetan komunikatu eta lankidetzan aritzeko.


### **Edukiak**

Ahozko eta idatzizko ulermenerako eta ahozko interakziorako hizkuntza-trebetasunei lotutako edukiak landuko dira diskurtsoaren alor ezberdinetan, baita hainat alderdi soziokultural eta soziolinguistiko ere.

### **Metodologia**

Bi saioetan, atazen bidez (*tasks*) lan egingo da, lau hizkuntza-trebetasunak praktikatzeko, eta funtzio komunikatiboa izango dute oinarri, hau da, komunikazio-interakzioa eta -trebetasuna sustatuko dira, saioak ahalik eta parte-hartzaileenak izaten saiatuta. Ataza bakoitza egiteko trebetasunak integratuko dira.

Atazak bakoitzak eskatzen duen erregistroaren arabera bereiziko dira: formala (1. saioa) edo informala (2. saioa). Hala, ikasleak hainbat egoera biziko ditu, eta horietan ingelesez komunikatuko da ahoz edo idatziz eta kulturarteko inguruneetan izango dituen esperientzietarako beharrezkoak dituen tresna praktikoak bereganatu ahal izango ditu.



### **MODULUA: HERRI-KULTURA ETA KULTURARTEKOTASUNA**

Modulu honen bidez jatorrizkoa ez den herrialde edota kultura batean norbanakoaren esperientziaren dimentsio kulturalaren inguruan hausnartu eta berau aztertuko da. Ikuspegi teoriko eta orokorra eskainiko bada ere, saio horien helburua da esperientzia horren alderik praktiko eta materialena aztertzea. Hau da, gure eguneroko bizitzan eta esperientzia horiek bereganatzean eraldatu edo eragiten duten bestelako alderdiak aztertuko ditugu: musika, literatura, zinema, komunikabideak, telebista, sare sozialak, moda, gastronomia, etab. Kultura-adierazpen horiek guztiak testuinguru historiko, politiko edo sozial zehatz baten baita garatu dira baina, aldi berean, kultura-adierazpenak kultura-nahasketa, ezberdinen arteko elkarriketa, definizio finkoei buruzko eztabaidan edo ideologiak artikulatzeko eraginkortasunez erabili dira. Hori dela eta, uste dugu erabilgarria dela bertako kultura arrotza zaion herrialde batean esperientzia bati aurre egin behar dion ikasleak kulturartekotasunean prestakuntza jasotzea, lengoaia, paradigma eta kultura-testuinguru berriak argitu eta bereganatzeko estrategiak gara ditzan.

#### **Gaitasunak**

1. Kulturartekotasun eta kultura-aniztasun egoerak komunikabide, herri-kultura eta aisialdi-alorretan behatu eta ulertzea.
2. Kultura-ekoizpenen konplexutasun ideologiko, ekonomiko eta politikoa ulertu, bereganatu eta aintzat hartzeko trebetasun, estrategiak eta baliabideak sortzea.
3. Edukiak, estereotipoak eta kultura-merkatuak kontsumitzean jarrera kritikoa aztertu eta garatzea.
4. Gaitasun kritikoa sustatzea, eta herri-kulturaren gaitasun kontzienteki eta neurrian kontsumitzea.

## Edukiak

- ✓ Gai orokorrak: kulturartekotasuna eta herri-kultura.
- ✓ Berariazko gaiak: komunikabideak; moda: minoriak eta literatura; musika eta zinema; tabu eta estereotipoak.
- ✓ Berariazko adibideak: euskal errealitatea beste kulturetan; maskulinitate eta feminitateak; Estatu Batuetako minoriak adibide praktiko gisa; musika eta ikus-entzunezko adibideak.

## Metodologia

Saioa hiru zati ezberdinetan banatuko da; orokorrenetik hasi eta adibide adierazgarri eta espezifikoenetara igaroko da. Zati bakoitzak jarduera bereziak izango ditu, IKT tresnen erabilera eta formatu pro-aktiboa sustatuko da, talde-lana eta hausnarketa kritikoa oinarri.





## MODULUA: HURBILKETA PSIKOSOZIALA ANIZTASUNERA, KULTURARTEKO KOMUNIKAZIOA ETA EMOZIOEN ERABILERA

Pertsona, gizarte eta kulturaren arteko harremanaren oinarri teoriko batzuk jorratuko ditugu, baita taldeen arteko harremanak ere; kulturarteko komunikazioaren ezaugarriak eta komunikazio eraginkorrerako estrategiak ere jorratuko ditugu.

### Gaitasunak

1. Eduki teoriko eta aplikatua modu kritikoan kudeatu eta aztertzea, informazio-iturri eta erreferentziako dokumentaziotik abiatuta.
2. Modu eraginkorrean harremanak izan eta komunikatzeko gai izatea, eta bakarka zein taldean lan egiteko gai izatea, besteekin batera eraginkortasunez lan eginda.
3. Ikaskuntza autonomorako trebetasunak eta etengabeko ikaskuntzaren garrantzia indartzea.

### Edukiak

1. saioa: Nortasun soziala eta nortasun pertsonala; taldeen arteko harremanak;
2. saioa: Besteekin komunikatzeko emozioak; lengoiaia eta kultura; ohiko elkarrizketak; kortesia eta irudi-gatazka.

### Metodologia

Bi saio teoriko-praktiko proposatzen ditugu, gizarte-psikologia eta aniztasunaren baitan. Metodologia dialektikoa izango da, parte-hartzailea eta ikasleekin lankidetzan aritzea helburu duena.





## MODULUA: KULTURA-TALKAREN ESPERIENTZIA NAZIOARTEKO IKASLEENGAN

Modulu honen helburua da ikasleen kulturarteko gaitasunak garatzen laguntzea, eta kultura-talketara egokitzen laguntzea, ikasleengan nazioarteko mugikortasuna sustatzeko helburuz.

### Trebetasunak

1. Aniztasuna eta kulturartekotasuna kontuan hartuta aritzea, beste kultura profesional eta hezkuntza-kulturaletan lan egiteko gai izateko.

Moduluaren amaieran, parte-hartzaileek:

- ✓ Kulturak giza-harremanetan duen eragina adierazteko gai izango dira.
- ✓ Kultura-talkaren esperientzia horren ondorioak aztertzekeo gai izango dira.
- ✓ Egokitzapena sustatzeko estrategiak deskribatzeko gai izango dira.

### Edukiak

- ✓ Kulturara sarrera: Zer da Kultura? Programazio kulturalaren alderdiak; Kultura prozesu dinamiko gisa: Kultura-mailak; Kultura izeberg gisa; Kultura eta horren eragina giza-harremanetan
- ✓ Kultura-talka edota estres akulturatiboa: Zer da eta nola gertatzen da kultura-talka?; Akulturazio-prozesua nazioarteko ikasleengan; Kultura Talkaren Ondorioak; Kultura-talkaren faktore modulatzailak; Kultura-talkak ikasleengan dituen ondorio positiboak
- ✓ Nazioarteko ikasle izateko erronkari aurre egiteko estrategiak.

## Metodologia

Ezarritako trebetasunak garatzea indartzeko, metodologia parte-hartzaileak erabiliz lan egingo da, eta horien bidez ikasleak beren ikaskuntza-prozesuan aktibo eta konprometituak izango dira.

Saioak azalpenezkoak eta parte-hartzaileak izango dira, eta lan kooperatibo/kolaboratiboak ere izango dituzte. Halaber, estrategia pedagogikoak erabiliko dira (jolasak, zine foruma...) gozamen, hausnarketa eta eztabaiden bidez ikaskuntza errazteko.